

BESTELAKO XEDAPENAK

OGASUN ETA FINANTZA SAILA

INDUSTRIA, TRANTSIZIO ENERGETIKO ETA JASANGARRITASUNAREN SAILA

4853

213/2025 DEKRETUA, azaroaren 4koa, zeinaren bidez baimena ematen baitzaio Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioari Bilbao Exhibition Centre SA sozietatearen kapital-gehikuntzan parte hartzeko, eta baimena ematen baitzaio Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren titulartasuneko akzioen ordezkariari sozietate horren estatutuen 6. artikulua aldatzeko adostasuna emateko.

Bilbao Exhibition Centre SA sozietatea 2001ean eratu zen, eta hauen partaidetza du: Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioa, Bizkaiko Foru Aldundia, Bilboko Udala, Barakaldoko Udala eta Bilboko Merkataritza, Industria, Zerbitzu eta Nabigazio Ganbera.

Haren xedea «merkataritza-topaketak antolatzea eta kudeatzea» da, «merkatuan jarduera ekonomikoaren adarrak sustatzeko bide gisa, baita aisiarekin eta kulturarekin zerikusia duten topaketak antolatzea eta kudeatzea ere».

Bilbao Exhibition Centre SA sozietatearen Akziodunen Ezohiko Batzar Orokorrak, 2025eko irailaren 17an egindako bilkuran, erabaki zuen 2.999.995,80 euroko kapital-gehikuntza egitea, eta, horretarako, gaur egun daudenen klase eta serie bereko 434.782 akzio berri jaulki eta zirkulazioan jartzea, bakoitza 6,90 euroko balio nominalekoa eta titulu izendunen bidez ordezkatuta, 18.956.529tik 19.391.310era bitartean zenbakituta, biak barnean direla.

Bilera horretan, Barakaldoko Udalak, Bilboko Udalak eta Bilboko Merkataritza, Industria, Zerbitzu eta Nabigazio Ganberak espresuki uko egin zioten akziodunen lehentasun-eskubideari, eta ez dute parte hartuko kapital-gehikuntzan.

Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioak, Bilbao Exhibition Centre SA sozietatearen bazkideenez, lehentasuneko eskubidea du aipatutako sozietate publikoaren Akziodunen Batzar Nagusiak jaulkitzen dituen akzio berriak harpidetzeko, Kapital Sozietateen Legearen 304. artikuluan jasotakoarekin bat etorritik (lege horren testu bategina uztailaren 2ko 1/2010 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onartu zen).

Euskadiko Ondareari buruzko Legearen 110.1 artikulua ezartzen duenez (lege horren testu bategina azaroaren 6ko 2/2007 Legegintzako Dekretuaren bidez onartu zen), enpresa-ondarea osatzen duten ondasunak eta eskubideak eskuratzeko, aurretiaz Gobernu Kontseiluaren baimena beharko da, dekretu bidez emana, eta horretarako proposamena, berriz, ondareari buruzko eskumenak dituen saileko buruak eta, zuzenean nahiz bitarteko erakunde baten bidez, sozietatea loturik duen edo loturik izango duen saileko buruak egin beharko dute, biek batera. Dekretu hori Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko da, baina, edonola ere, ematen den egunetik aurrera izango da indarrean.

Kapitala ordezkatzeko duten baloreak eskuratzeko baimena ematen duen dekretuak, doako eskuratzeko ez baldin bada behinik behin, nahitaez adierazi beharko du sozietatearen xedea zein den, baita Euskal Autonomia Erkidegoak eskuratzeko horretan zuzenean nahiz zeharka zer partaidetza-ehunekoa izango duen ere.

2025eko azaroaren 14a, ostirala

Bestalde, lege-testu beraren 111.2 artikulua hau xedatzen du: zuzenean nahiz zeharka Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio orokorraren edo instituzionalaren titulartasunpekoak diren akzioen ordezkariak sozietate-estatutuak onartzeko edo aldatzeko onarpena emateko, Gobernu Kontseiluaren baimena beharko dute, ondareari buruzko eskumenak dituen sailburuak eta sozietatea loturik duen saileko sailburuak biek batera proposaturik.

Horrenbestez, Industria, Trantsizio Energetiko eta Jasangarritasuneko sailburuak eta Ogasun eta Finantzetako sailburuak proposatuta, Gobernu Kontseiluak 2025eko azaroaren 4an egindako bilkuran aztertu eta onartu ondoren, hauxe

EBAZTEN DUT:

1. artikulua.– Baimena ematea Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioari Bilbao Exhibition Centre SA sozietatearen kapital-gehikuntzan parte hartzeko. Horretarako, milioi bat laurehun eta laurogeita hemeretzi mila bederatzehun eta laurogeita hamazazpi euroren eta laurogeita hamar zentimoren akzioak harpidetuko ditu (1.499.997,90) euro, hau da, kapital-gehikuntzaren % 50. Eragiketa horren ondorioz, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioak % 49,989ko zuzeneko partaidetza izango du Bilbao Exhibition Centre SA sozietatean.

2. artikulua.– Baimena ematen zaio Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio orokorraren titulartasuneko akzioen ordezkariari, kapital-gehikuntzaren ondorioz, Bilbao Exhibition Centre SA sozietatearen estatutuen 6. artikulua aldatzeko adostasuna emateko, kapital-gehikuntzaren emaitzaren arabera, kapital sozialaren zenbateko berria jaso dadin.

3. artikulua.– Ahalmena ematea Ogasun eta Finantza Saileko Ondare eta Kontratazio zuzendariari aurreko artikuluetan xedatu dena betetzeko behar diren jarduketak guztiak egiteko eta behar diren agiri guztiak izenpetzeko.

AZKEN XEDAPEN BAKARRA

Dekretu honek onartzen den egunetik aurrera izango ditu ondorioak.

Vitoria-Gasteizen, 2025eko azaroaren 4an.

Lehendakaria,
IMANOL PRADALES GIL.

Ogasun eta Finantzetako sailburua,
NOËL D'ANJOU OLAIZOLA.

Industria, Trantsizio Energetiko eta Jasangarritasuneko sailburua,
MIKEL JAUREGI LETEMENDIA.